

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Yvetot



ARITZ GALARRAGA

Tira, mutiko haren irrikek hartu zuten norabidea zein den oraindik ez dakit, baina azken egunotako kezka izaten du jarraitzen sorterriarekiko harremanak, erbestea ezagutu ondoren. Annie Ernaux idazleak badu liburutxo bat, *Retour à Yvetot*, zeinean gozoki azaltzen duen haurtzaroan bizi izandako herriarekin enkontrua, urte luzaz kanpoan bizi eta gero: “Ez nintzen sekula oraindik itzuli idazten duen emakume gisan”. Yvetot, Flauberten hitzetan Konstantinoplak adina balio duen Normandiako zokoa, Ernauxentzat oso goiz bilakatu zen beste zerbait: liburu bat idatzi nahi izan zuen lehenbailehen, handik ihes egiteko. Eta modu horretan hautsi zuen erreka uretan lixiba egitera dedikatzen zen belaunaldi luzeetako tradizioarekin. Nolabaiteko lotsa soziala sentitzen baitzuen. Hala, klase iheslari bilakatu zen, klasegabetua baina goitik.

Halako batean, ordea, ezagutzen zuen errealtateaz idatzi behar zela erabaki zuen. Orduantxe hasi zen sentitzen tentsio moduko bat, nola idatzi, hizkuntza literarioaren, ikasi, maite zuen haren, eta etxeko, dominatuen hizkuntzaren artean. Nola egin, idazketaren bitartez, atera garen mundu hori ez traizionatzeko? Asmatu zuen hizkuntza bat, hizkuntza klasiko literarioaren oinordeko eta aldi berean klase popularrek erabiltzen zituzten hitz eta esapideak integratuko zituen. “Guztion hizkuntzan literarioki idaztea da nire desioa. Politiko gisa defini genezakeen aukera bat da”. Proustek zioen, MZri irakurri nion, liburu ederrak hizkuntza arrotz suete batean daudela idatzita. Eta arrotzasan hori, besteak beste, ohiko hizkuntzari zenbait osagai kenduz lortzen dela; eranstea, idazle txarren kontua da –Walter Benjamin, adibidez, “ni” izenordaina saihesten saiatzen zen–. Ernauxen kasuan, bizitza idazteko modu bilakatu zaio hizkuntza arrotz, baina orobat etxeko suete hori. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



“INOIZ HARTU BEHAR EZ ZUEN BIDEA HARTU DU IRUÑA-VELEIAREN AFERAK”

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA

“Eepai-bidez ez, baizik eta bide zientifikotik argitu beharrekoa da Iruña-Veleiaren afera. Gaur egun eztabaida behar ez den lekura bideratuta dago eta euskal herritarrek gai horrekin interes bakarra dute, bertan agertutakoak egiak diren edo ez jakitea. Hori ezin da epei bidez argitu, zientziaren bidea baliatu behar da horretarako eta gainerako bideak albo batera utzi. Horrexegatik, hain zuzen ere, Kontseiluak ez du egoki ikusten afera judizializatzea eta, une oro, herritarren errugabetasun-printzipioa ardatz izan behar dela uste du”. 2020/02/03

